2020ITGB0009

Ordizian, **2020ko uztailaren 30ean**, udaletxe honetako batzar-aretoan bildu da **TOKIKO GOBERNU BATZORDEA, ohiko bilkuran**, honakoak bertaratu direlarik:

En Ordizia, siendo el día **30 de julio de 2020** se reúne en el Salón de Plenos la **JUNTA DE GOBIERNO LOCAL** en Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:

**BERTARATUAK:**

**LEHENDAKARIA**

Adur Ezenarro Agirre

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK**

| | |
|---|---|
| Maitane Alvarez Garziandia | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Jon Ander Caballero Zubelzu | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Miren Alazne Sukia Galparsoro | ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) |
| Jose Miguel Santamaría Ezeiza | EAJ/PNV |
| Iñaki Dubreuil Churruca | PSE-EE (PSOE) |

**BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

**IDAZKARIA**

Ana Urkizu Kerejeta

**BERTARATUTAKO BESTE BATZUK ETA ETORRI EZ DIRENAK**

**AZTERTUTAKO GAIAK**

**EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

**1.-** 2020ko uztailaren 2ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.
**2.-** 2020ko uztailaren 16ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.
**3.-** Hirigintza baimena, Urdaneta kalea 68an 20 etxebizitza, merkataritza lokala eta garajeak eraikitzeko Goi-Etxe S.A.k eskatuta.
**4**.- Bertan behera geratutako Santa Ana jaien asteburuko balorazioa.
**5.-** Zenbait txosten eta eskaera.
.- Santa Ana jaiak bertan behera geratu diren asteburuaren balorazioa.
.- Euskal jaiak.
.- Informazio-delegaritzak
.- Udaltzaingoa
.- Goiekiren enplegu-plana:
.- Herritarren partaidetzarako dirulaguntzak
.- Aisialdiko baratzeetarako partzelen esleipena.
.- Merkataritza-bonuak
.- Oianguko parrilak erabiltzeko debekua, "Bero-boladagatik"
.- HAPOren irismenari eta hizkuntza-eraginari

**ASUNTOS TRATADOS**

**ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA:**

**1.-** Aprobación del borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 2 de julio de 2020.
**2.-** Aprobación del borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 16 de julio de 2020.
**3.-** Licencia urbanística para la construcción de 20 viviendas, local comercial y garajes en el nº.68 de Urdaneta kalea a solicitud de Goi-Etxe. S.A.
**4.-** Valoración del fin de semana de las fiestas patronales suspendidas de Santa Ana.
**5.-** Informes y solicitudes varias.
.- Valoración del fin de semana de las fiestas patronales suspendidas de Santa Ana.
.- Fiestas Vascas.
.- Delegaciones informativas.
.- Policía Municipal
.-Plan de Empleo de Goieki:
.-Subvenciones participación ciudadana
.-Adjucicación de las parcelas para huerta de ocio
.-Bonos comercio
.- Prohibición de utilización de las parrillas de Oiangu por “ola de calor”
.- Informe de Alcance y de Imapacto lingüístico del P.G.O.U
.- Eficiencia energética
.- Primas de jubilación



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

| | |
|---|---|
| buruzko txostena<br>.- Energia eraginkortasuna.<br>.- Erretiro-primak<br>.- Delegazioetako aktak. | .- delegazioetako aktak. |

**PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:**

| | |
|---|---|
| **GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:** | **Ruegos y preguntas:** |
| .-Txupinazoaren egunean COVID-19gatik Ordizian hildakoak oroitzeko ekitaldia. | .- Acto en memoria de los fallecidos en Ordizia por el COVID-19 el día del chupinazo. |

**ORDUTEGIA**

**HASIERA ORDUA: 13:00etan** **AMAIERA ORDUA: 14,45 etan**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

| | |
|---|---|
| **1.- 2020ko uztailaren 2ko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.** | **1.- Aprobación borrador del acta de la sesión de fecha 2 de julio de 2020** |
| Proposamena | Propuesta |
| **2020ko uztailaren 2ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.** | **Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 2 de julio de 2020.** |

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0
**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**2.- 2020ko uztailaren 16ko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

Proposamena

**2020ko uztailaren 16ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.**

**2.- Aprobación borrador del acta de la sesión de fecha 16 de julio de 2020**

Propuesta

**Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 16 de julio de 2020**

Eztabaida

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez da izan.

Bozketa

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira

**Aldekoak**: 6 (EH-BILDU ORDIZIA 3, EAJ/PNV 1, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**:0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**3.- Hirigintza baimena, Urdaneta kalea 68an 20 etxebizitza, merkataritza lokala eta garajeak eraikitzeko Goi-Etxe S.A.k eskatuta**

**3.- Licencia urbanística para la construcción de 20 viviendas, local comercial y garajes en el nº 68 de Urdaneta kalea a solicitud de Goi-Etxe. S.A.**

Alkate jaunak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jauna

Batzordeko kideei azaldu die udal arkitektoaren txostena lizentziaren aldekoa dela, baina oraindik baloratu egin behar duela zenbatekoa den Goi-Etxek zuzkidura-karga gisa ordaindu beharreko monetarizazioa.

Horregatik ez da proposamena erantsi.

Alkateak proposatu du, abuztuko oporraldia tartean dela kontuan izanda, Batzordeak oniritzia eman diezaiola lizentzia Alkatetza dekretu bidez emateari.

Kide guztiak ados daude.

Sr. Alcalde

Explica a los miembros de la Junta que el informe del arquitecto municipal es favorable a la licencia pero le queda aún por valorar la cuantía de la monetarización a abonar por GOI-ETXE en concepto de carga dotacional.

Es por ello que no se adjunta la propuesta.

Propone el Sr. Alcalde que a la vista del periodo vacacional de agosto, la Junta de el visto bueno a que la concesión de la licencia se conceda por decreto de Alcaldía.

**Todos los miembros muestran su conformidad.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**5.- Zenbait txosten eta eskaera**

**5.- Informes y solicitudes varias.**



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

1.- Santa Ana jaiak bertan behera geratu diren asteburuaren balorazioa.

Alkate jauna

“Ez-jai” diren egunak nola igaro diren jakinarazi du.

Bere esanetan, gauza zehatz batzuk izan ezik (matutina egunean mozorrotu diren koadrilak eta koadrilen egunean blusekin atera ziren koadrilak), portaera ez da hain txarra izan.

Sukia andrea

Arauak hautsi dituztenei errieta egin beharko litzaiekeela uste du.

Dubreuil jauna

Esan du COVIDaren beste olatu-kolpe edo bolada batek ondorio kaltegarriak ekar ditzakeela merkataritzarako, asteko merkaturako eta abarretarako.

Merkatariak kexu agertu dira COVIDen agerraldiaren ostean, bezero gutxi izan dutelako.

Alvarez andrea

Adierazi du festen aurretik bilera bat egin zela gazteekin, informazioa emateko, baina, hala ere, ez daudela kontzientziatuta.

Alkate jauna

Euskal jaiak ez direla ospatuko eta egingo den ekitaldi bakarra gaztaren enkantea dela esan du. Gaztaren Kofradiarekin bildu da eta enkante hori irailaren 11n, ostirala, egitea adostu dute, asteroko azokaren egunarekin bat egin ez dezan.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

2.- Alkate jauna

Jakinarazi du, arazo informatiko batengatik, uztailaren 20rako deitu ziren Lurralde eta Antolaketako informazio batzordeak ez zirela kide guztiengana iritis. Ez zegoen osoko bilkurara eramateko punturik, informatiboak baino ez ziren.

Gai garrantzitsuenen berri eman du:

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

1.- Valoración del fin de semana de las fiestas patronales suspendidas de Santa Ana.

Sr. Alcalde

Informa cómo han transcurrido los días de no fiesta.

Dice que salvo aspectos puntuales (cuadrillas que se han disfrazado el día d ela matutina y cuadrillas que salieron con blusas el día de las cuadrillas), el comportamiento no ha sido tan malo.

Sra. Sukia

Considera que habría que dar una reprimenda a quienes se han saltado las normas.

Sr. Dubreuil

Dice que una nueva oleada del COVID en Ordizia puede traer consecuencias nefastas para el comercio, mercado semanal… etc.

Los comerciantes de hecho se han quejado tras el brote del COVId de la poca afluencia de clientes.

Sra. Alvarez

Señala que se ha hecho previamente a las fiestas una reunión con los jóvenes para informarles pero aún así, dice, no están concienciados.

Sr. Alcalde

Dice que las fiestas vascas no se celebrarán y que el único evento que se celebrará es la subasta del queso. Se ha reunido con la Cofradia del Queso y se ha acordado celebrar dicha subasta el día 11 de septiembre, viernes, para que no coincida con el día del mercado semanal.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

2.- Sr. Alcalde

Informa de que las comisiones informativas de Territorio y Organización que se convocaron para el día 20 de julio no llegaron a todos sus miembros por un problema informático. No tenían puntos a dictaminar para el pleno, tan solo eran informativas.

Informa de las cuestiones más importantes:

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Policía Municipal.

Udaltzaingoa.

Gaixotasun-bajen, aitatasun-lizentzien eta abarren ondorioz langile gutxi daudela jakinarazi du. Une honetan 8 daude lanean. Egun batzuk barru, beste udaltzain bat sartuko da, Udaltzainen Koordinakundearen bitartekoen poltsatik datorrena. Hiru pertsona eskatu dira, baina bakarra dago libre.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Goiekiren Enplegu Plana:

Sei kontratazio eskatu dira, lau peoi, administrari bat "Izapideen Esku-liburua"ren izapideetarako eta administrari bat gehiago udal inbentarioari buruzko informazioa biltzeko, eguneratzeko.

Horrekin batera, azaldu du beste dirulaguntza-lerro bat ere badadagoela gazteak, graduatuak, kontratatzeko, eta aztertzen ari direla graduatutako aparejadore bat eskatzea, adinekoen eta mendekotasuna duten pertsonen etxebizitzen egoerari buruzko azterketa bat egiteko.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Herritarren partaidetzarako dirulaguntzak. "Ordizia, hiri hezitzailea" proiekturako dirulaguntza eskatzeko aukerak aztertzen ari dira.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Aisialdiko baratzeetarako partzelak esleitzea. Berriki egin den esleipen-prozesuaren berri eman du.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Merkataritza-bonuak. Udazkenean berriro erosketa bonuen kanpaina abiatuko da herriko saltokietan. Udaleko kontu-hartzailearekin aztertzen ari da.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Alvarez andrea.

Oianguko parkeko parrilak ezin izango dira erabili asteburu honetan, "Bero-kolpe edo boladagatik”.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

HAPOren irismenari eta hizkuntza-eraginari buruzko txostena. Eusko Jaurlaritzak dekretu berri bat atera duela jakinarazi du, plan orokorrak onartzeko jarraitu beharreko prozedurari buruz eta fase bakoitzean behar diren dokumentuei buruz.

Informa de la escasez de efectivos por bajas de enfermedad, licencias de paternidad… En estos momentos hay 8 trabajando. Dentro de unos días se incorpora un efectivo más que proviene de la bolsa de interinos de la Coordinadora de Policías Locales. Se han solicitado 3 personas pero solo hay disponibel una.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Plan de Empleo de Goieki:

Se han solicitado 6 contrataciones, 4 peones , 1 administrativo para los trámites de “ Izapide Esku Liburua” y 1 Administrativo más para la recopilación de información sobre inventario municipal que necesitamos para actualizarlo.

Comenta también que hay otra linea de subvenciones para contratación de jóvenes, graduados, y que se está analizando solicitar un garduado aparejador para llevar a cabo un estudio sobre el estado de las viviendas de personas mayores y dependientes.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Subvenciones participación ciudadana. Se está analizando la posibilidad de solicitar subvención para el proyecto de “Ordizia, ciudada educadora”.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Adjucicación de las parcelas para huerta de ocio. Informa sobre el proceso de adjudicación que se ha llevado a cabo recientemente.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Bonos comercio. En otoño se lanzará nuevamente una campaña de bonos de compra en comercios del municipio. Lo está analizando con el Interventor municipal.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Sra. Alvarez.

Informa de la prohibición de utilización de las parrillas del parque de Oiangu durante este fin de semana por “ola de calor”.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Informe de Alcance y de Imapacto lingüístico del P.G.O.U. da cuenta de que la publicación de un nuevo decreto del G. Vasco sobre el procedimiento a seguir para la aprobación de los planes generales y los documentos que se requieren en cada fase.

Se ha completado la documentación con el informe de

Eragin linguistikoaren txostenarekin eta ingurumen txostenarekin osatu dute dokumentazioa, eta oporren ostean "HAPOren irizpide eta irtenbide orokorren" dokumentua osoko bilkurak onartzea da asmoa.

impacto lingüístico y el informe ambiental y la intención es aprobar despues de las vacaciones el documento de "criterios y soluciones generales del PGOU" por el pleno.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Energia eraginkortasuna. Batzorde bat sortuko da.

Eficiencia energética. Se va a crear una comisión.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

Erretiro-primak. Idazkariak gaiari buruz egin duen txostenaren kopia bana eman diete kide guztiei, eta horrekin batera 2015eko apirilean onartutako Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Planaren kopia eta 2017ko abenduan onartutako plan horren eranskinaren kopia ere bai.

Kideek eskatu dute irailean Batzorde Paritarioaren deialdia egiteko, , gaia aztertu eta erabaki bat hartzeko.

Primas de jubilación. La Secretaria ha facilitado a cada uno de los miembros una copia del informe que ha emitido sobre el tema así como copia del Plan de Racionalización de RRHH aprobado en abril de 2015 y del Anexo al citado Plan aprobado en diciembre de 2017.

Los miembros solicitan la convocatoria de la Comisión Paritaria en septiembre para tratar el tema y adoptar una decisión.

. . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

3.- Delegazioetako aktak.

3.- Actas de Delegaciones.

Dubreuil jauna

KULTURLAB proiektuari buruzko informazioa eskatu du.

Alkate jauna

Erantzun dio lanean hasteko mahai bat eratzeko asmoa dutela.

Sr. Dubreuil

Solicita información sobre el proyecto KULTURLAB.

Sr. Alcalde

Le responde que el planteamiento es constituir una mesa para empezar a trabajar.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**6.- Galde-erreguak**

Santamaria jauna

Adierazi du, hilaren 24an, txupinazoaren egunean, 12:00etan, ekitaldi bat egin zela udaletxeko arkupeetan, COVID-19gatik Ordizian hildakoen omenez, eta bazirudiela ekitaldi instituzional bat zela, baina ez zituztela talde politiko guztiak gonbidatu.

Alkate jauna

Erantzun dio esanez ez zela horrela izan, eta jendea era espontaneoan bildu zela plazan.

**6.- Ruegos y preguntas.**

Sr. Santamaría

Señala que el día 24, día del chupinazo a las 12,00 horas se llevó a cabo en los soportales del ayuntamiento un acto en memoria de los fallecidos en Ordizia por el COVID-19 y dio la impresión de que se trataba de un acto institucional al que no han sido invitados todos los grupos políticos.

Sr. Alcalde

Le responde que no fue así y que la gente se concentró en la plaza espontáneamente.

Sr. Santamaría



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Santamaría jauna

Azpimarratu du eman zen irudia ekitaldi instituzional batena izan zela.

Dubreuil eta Santamaria jaunak

Hedabideei eta herritarrei adierazpen instituzionalak helarazten zaizkienean, talde guztiei parte hartzeko deia egin beharko litzaiekeela uste dute.

Alkate jauna

Hala egingo dela erantzun du.

Insiste en que la imagen fue de un acto institucional.

Sres. Dubreuil y Santamaría

Creen que cuando se trasladen a los medios y a la ciudadanía declaraciones institucionales, se haga participe a todos los grupos.

Sr. Alcalde

Responde que así se hará.

Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo la Secretaria, certifico.

ALKATEAK / EL ALCALDE

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIAK / LA SECRETARIA ACCIDENTAL

Ordiziako herri noble eta leialeko alkatetza

**ADUR EZENARRO AGIRRE - 44142431A**
**Data / Fecha: 21/09/2020**

**ANA ISABEL URQUIZU QUEREJETA - 15962019L**
**Data / Fecha: 21/09/2020**



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus